

ESPAINIA-FRANTZIA-ANDORRA LURRALDE LANKIDETZARAKO 2014-2020KO PROGRAMA ERAGILEA

**EUSKADIKO SUSTATZAILEAK DITUZTEN PROIEKTU AMAITUAK
2014-2019**



2021eko otsaila

1.- “Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra” 2014-2020 Lankidetza Programa

"Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra" 2014-2020 lankidetza-programa (POCTEFA), 2015eko maiatzaren 19an onartua, Espainia-Frantzia-Andorra mugaldeko integrazio ekonomikoa eta soziala indartzeko Europar Batasunak ematen duen laguntzaren bosgarren belaunaldia da.

Programak ia 15 milioi biztanleri eragiten die, eta eremu hautagarriak 115.583 km²-ko azalera hartzen du, zeinak Frantzia-Espainia mugatik gertu dauden departamentu eta probintziak eta Andorrakoak biltzen baititu.

EGEF Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren bitartez programa honi 189 milioi euro eman zaizkio, hau da, 2007-2013 Programarekin alderatuta, % 12ko igoera. Euskal Autonomia Erkidegoari 19,33 milioi dagozkio, hau da, diru-baliabide guztien % 20.

Programa honek lankidetza-proiektuak finantzatzen ditu, non eremu hautagarrian kokatuta dauden hiru estatueta bi kideetatik bat, gutxienez, inplikaturiko dagoen. Finantzaketa lor dezaketen onuradunak entitate publikoak zein pribatuak dira.

EGEF esku-hartze-tasa gehienez ere lankidetza-eragiketen kostu hautagarriaren % 65ekoa da, Estatuaren laguntzen araudia aplikatu behar den kasuetan izan ezik.

POCTEFAREN Kudeaketa Agintaritza Pirinioetako Lan Elkartea (PLE) da. Partzuergo hori 1983an sortu zen, eta Frantziako 2 eskualdek (Akitania Berria eta Okzitania), 4 autonomia-erkidegok (Euskadi, Nafarroa, Aragoi eta Katalunia) eta Andorrako Printzerriak osatzen dute.

"Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra" 2014-2020 lankidetza-programak lehentasunezko 5 ardatz definitu ditu, guztiz bat egiten dutenak garapen adimendun, jasangarri eta integratzaileko Europa 2020 Estrategiarekin.

Ardatza Nagusiak	EGEF €	Inbertsio Lehentasuna	Milioi €	%
1. ardatza Berrikuntza eta lehiakortasuna dinamizatzea	49.834.656	1 b	40,9	%26
		3 b	8,9	
2. ardatza Aldaketa klimatikorako egokitzapena sustatzea, baita arriskuen prebentzioa eta kudeaketa ere	28.476.946	5 a	10,7	%15
		5 b	17,8	
3. ardatza Tokiko baliabideen babesa, balorizazioa, erabilera jasangarria sustatzea	48.054.847	6 c	24,9	%25
		6 d	23,1	
4. ardatza Ondasunen eta pertsonen mugikortasuna laguntzea	24.917.328	7 c	24,9	%13
5. ardatza Lurraldeen eskumenak eta inklusioa indartzea	26.697.137	8 e	12,4	%14
		9 a	14,2	
6. ardatza Laguntza Teknikoa	11.360.483			%6
EGEF Guztira	189.341.397			%100

Lehen ardatzak ("**Berrikuntza eta lehiakortasuna dinamizatzea**") proiektu hauek finantzatzen ditu: I+G arloan, mugaren bi aldeetako lurraldeko eragileen arteko lankidetzak indartuko duten proiektuak; lankidetzari esker baliabide naturalen arloan teknologia berritzaileak garatzen lagunduko duten proiektuak, eta mugaz gaindiko lurraldeko enpresak nazioartean garatzeko ekintza bateratuak bultzatuko dituzten proiektuak. Ardatz honek 49,8 milioi euro ditu (aurrekontu osoaren % 26).

Bigarren ardatza ("**Klima-aldaketarekiko egokitzapena eta arriskuen prebentzioa eta kudeaketa sustatzea**") lurraldeak klima-aldaketara hobeto egokitzeko eta arrisku espezifikoak eta hondamendi naturalen kudeaketari aurrea hartzeko eta erantzuteko gaitasuna hobetzeko proiektuetara zuzenduta dago. Ardatz horretara 28,5 milioi euro bideratuko dira (aurrekontuaren % 15).

Hirugarren ardatzak ("**Tokiko baliabideen babesa, balorizazioa eta erabilera jasangarria sustatzea**") garapen jasangarriko ikuspegi bateratuen bidez ondare naturalari eta kulturalari balioa ematen dioten eta mugaz gaindiko ekosistemen kalitatea babesten eta hobetzen duten proiektuak finantzatzen ditu. Ardatz honek 48 milioi euro ditu (aurrekontuaren % 26).

Laugarren ardatza ("**Ondasunen eta pertsonen mugikortasuna laguntzea**") pertsonen eta merkantzien joan-etorriak eta mugikortasuna hobetzeko xedez mugaz gaindiko garraio-eskaintza jasangarria hobetzen duten proiektuak ditu oinarri. Ardatz honek 24,9 milioi euro ditu (aurrekontuaren % 13).

Azken ardatzak ("**Lurraldeen eskumenak eta inklusioa indartzea**") enplegurako eta zerbitzuetarako irispidea hobetzeko xedez mugaz gaindiko lurraldearen potentzial endogenoa, prestakuntza-sistemen garapena eta pertsonen eskumenak sustatzen

dituzten proiektuak finantzatzen ditu. Ardatz honek 26,7 milioi ditu (aurrekontuaren % 14).

2.- Proiektuen hautaketa

Programa eragile honetan, mugaz gaindiko proiektuen mobilizazioa deialdi itxi eta erregularren bitartez egiten da, eta Kudeaketa Agintaritza da deialdi horiek egin behar dituen, Jarraipen Batzordeak agindutakoari segituz.

Deialdi bakoitzean, lankidetzaren eremu batean egokitzen diren mugaz gaindiko proiektuak garatzeko interesa duten lurraldeko eragileek programarako hautagaitzak aurkeztu behar dituzte. Hautagaitzak aurkeztu ondoren, programaren arduradunek lurraldearen eskarietara eta proposamenak aurkezteko irizpideetara egokitzen diren proiektuak aukeratu dituzte. Proiektu horiek programatuta daude orduan, eta Eskualde Garapenerako Europako Funtsak (EGEF) lagundutako finantzaketa jaso dezakete.

Programa indarrean egon den bitartean, hiru deialdi egin dira, eta, horien ondorioz, 173 proiektu programatu dira POCTEFA mugaz gaindiko lurraldean. Proiektu horien guztizko inbertsioa 274 milioi euro ingurukoa da, eta 178 milioi euro inguruko dirulaguntza jasoko dute Europar Batasunetik.

Programatutako 173 proiektu horietatik 81ek Euskal Autonomia Erkidegoko sustatzaileen partaidetza zuten. 81 proiektu horien kostua, guztira, 124 milioi eurokoa da eta horietatik ia 32 milioi euro EAEko bazkideen inbertsio eskusibokoak dira, zeinek Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren 20,6 milioi euroko ekarpen orokorra jasoko baitute.

Urte hauetan EGEF laguntzaren EAEko onuradunak hauek izan dira: zuzenbide publikoko 53 entitate eta zuzenbide pribatuko 46 entitate.

EAEko sustatzaileak dituzten proiektuen langaiari dagokionez, esan dezagun 1. ardatzean biltzen direla proiektuen ia % 38 ("Berrikuntza eta lehiakortasuna dinamizatzea"). 3. ardatzak ("Tokiko baliabideen babesa, balorizazioa eta erabilera jasagarria sustatzea") proiektuen % 21 biltzen ditu. 4. ardatzak ("Mugaz gaindiko lurraldean pertsonen eta ondasunen mugikortasuna bultzatzea") proiektuen % 17 biltzen ditu. 2. ardatza ("Klima-aldaketarekiko egokitzapena eta arriskuen prebentzioa eta kudeaketa sustatzea") EAEko inbertsio osoaren % 12 da. 5. ardatzak ("Lurraldeen eskumenak eta inklusioa indartzea") gainerako % 12 biltzen du.

3.- Euskal Autonomia Erkidegoaren parte-hartzea duten lehen proiektu amaituak.

Programaren hasieratik 2019. urtearen amaierara arte, 35 proiekturen jarduera amaitu da, eta horietatik 23k EAEko sustatzaileen parte-hartzea dute. Hona hemen zertzelada labur batzuk amaitutako euskal proiektuen eta lortutako helburuen inguruan.

1. ardatza: “Berrikuntza eta lehiakortasuna dinamizatzea”

Ardatz honetan, 2019an, 13 proiektu amaitu dira, eta horietako zortzitan lankidetzan aritu dira EAEko sustatzaileak.

"COMPETITIV'EKO" proiektua ETEen lehiakortasuna indartzeko asmoz sortu zen, mugaz gaindiko lankidetzatik abiatuta eta Euskadiko, Nafarroako eta Akitania Berriko klusterren, teknologia-zentroen eta garapen ekonomikorako agentzien parte-hartzearen bitartez. Proiektuak iraun duen urteetan, mugaz gaindiko hiru partzuergo sortu dira: BIGDATIA (Big Dataren eta adimen artifizialaren arloan diharduen partzuergoa), ADDITIVALLEY (18 teknologia biltzen dituen fabrikazio gehigarriko partzuergoa) eta INNOVMEDICA Alliance (neurri egindako gailu medikoen diseinuan eta prestaketan zentratutako partzuergoa). Era berean, berrikuntza-plataforma bat sortu da, hiru lurraldeetako sei osasun-establezimenduz hornitua, eta 20 berrikuntza-aukera identifikatu dira. Azken batean, proiektuak lortu du lankidetz-ekosistema bat sortzea Euskadi-Nafarroa-Akitania Berria mugaz gaindiko eremuan. Proiektuan parte hartu duten EAEko bazkideak Orkestra-Deusto Fundazioa eta Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganbera izan dira.

"TRANSFERINN" proiektuak berrikuntza eta ezagutzaren transferentzia bultzatu ditu, informazioaren eta ikerketaren esparrutik ETE, enpresa txiki, mikroenpresa eta ekintzaileetara. Proiektua bideratuta dago I+G+B jarduerak noizbehinka bai baina sistematikoki egiten ez dituzten eta berrikuntza-estrategiak falta dituzten enpresetara. Urte hauetan zehar, lankidetz bateratuko hainbat nodo dinamizatzeko balio izan du proiektuak, eta horri esker, nekazaritzako elikagaien, nekazaritza-turismoaren eta fabrikazio aurreratuaren arloko enpresak elkartu ahal izan dira. Azaro Fundazioaren eta Mondragon Goi Eskola Politeknikoaren eskutik etorri da EAEko lankidetz. Azaro Fundazioak taldeburuaren funtzioak hartu ditu bere gain.

"TRANSFRON3D" proiektuaren helburua zen mugaren bi aldeetako zentro teknologikoen, unibertsitateen, enpresa handien eta ETEen arteko lankidetz, balio erantsi handiko piezak ekoizteko, fabrikazio gehigarriko prozesuen bidez (3D inprimaketa). Proiektuak iraun duen urteetan, ahaleginak batzea eta ezagutza partekatzea lortu da, POCTEFA lurraldeak eskaintza lehiakorra izan dezan fabrikazio

gehigarriko teknologietan. Emaitzarik nabarmenena izan da lau prototipo fabrikatu direla fabrikazio gehigarriaren bidez; zehazki, motozikletetako lehiaketa-motorreko piezak, biela eta/edo pistoia; titanio-aleazioko egiturazko pieza aeronautiko bat; hegazkinentzako turbofan motorren pieza bat, eta prototipo-pieza bat, teknologia bakoitzaren ahalmena eta mugak ebaluatzen dituzten zenbait metodoren bidez fabrikatua. Proiektuan parte hartu duten EAEko bazkideak izan dira: Tecnalía Research & Innovation (taldeburua), Mizar Additive Manufacturing S.L.U., Aernnova Engineering Division S.A.U. eta Euskal Herriko Unibertsitatea.

"HEALTH SR" proiektuaren asmoa zen osasunaren sektorean mugaz harandiko jarduera berritzaileak garatzea, eskuarki balio erantsi txikiko jarduerekin lotuta egon ohi diren silikona likidoaren sektoreko enpresen dibertsifikazioa bultzatzeko. Proiektua indarrean egon den urteetan, teknikoki bideragarriak diren 6 prototipo garatu dira, eta horiek Silikona Likidoko Poloko enpresekin merkaturatzen ari dira. Gainera, lantalde finko bat sortu da, Europako beste proiektu batzuekin lankidetzan jarraitzen duena. Proiektuan parte hartu duen EAEko bazkidea Leartiker S.Coop. izan da, taldeburu-lanetan.

"REFBIO II" proiektuaren helburua da biomedikuntzaren eremuan mugaz gaindiko lankidetzak sendotzea, ikerketa-erakundeen arteko lankidetzak areagotuz, berrikuntza sustatuz eta I+G emaitzak lurraldeko enpresa eta klusterretara transferituz eta ustiatuz. Proiektuak ikerketa eta berrikuntzako 20 lankidetzako proiektu amaitzea lortu du. Proiektu honetan parte hartu duten EAEko bazkideak dira: Berrikuntza eta Ikerkuntza Sanitariorako Euskal Fundazioa, Biodonostia Institutua, eta Biocruces Osasun Ikerketako Institutua.

"CYCLAG" proiektuaren helburua zen mikroalgen kultiboaren bidez biodiesela lortzeko prozesuaren errentagarritasun ekonomikoa eta ingurumen-jasangarritasuna hobetzeko aukera emango zuten prozesu teknologikoak garatzea eta baliozkotzea. Proiektuan zehar, mikroalgak sektore ekonomiko berri bat bilakatzea lortu da, olio, proteina eta biomolekulak lortzeko baliabide bat. Labur esanda, proiektuko taldeak lortu du elikagaien hondakinak aprobetxatzea eta mikroalgen biomasa industrialki inplementatzea. Proiektuan parte hartu duten EAEko sustatzaileak izan dira: NEIKER - Nekazaritza Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea (taldeburua) eta TECNALIA Research & Innovation.

"FOODYPLAST" proiektua sortu zen nekazaritzako elikagaien sektorearen berrikuntza bultzatzeko, elikagaietarako plastikozko ontzien arloan. Programatu den garaian, proiektuak gehigarri natural eta birziklagarriekin egonkortutako bi polimero garatu ditu

(polipropilenoa eta polietilenoa). Hortaz, proiektu honen erronka nagusia izan da material berritzaile bat garatzea (elikagai-kalitateko plastikoa) gehigarri naturalak dituen (batzuk tokiko nekazaritzakoak), migrazioerik gabekoa, usaingabekoa eta erabat birziklagarria. Proiektuaren EAEko sustatzailea Leartiker S.Coop. izan da.

"REVALPET" proiektuaren helburua zen PET opakua oinarri hartuta birziklatutako materialen inguruko berrikuntza dinamizatzea, ingurumena zaintzen eta birziklatze-sektorearen lehiakortasunari eusten laguntzeko. Urte hauetan zehar, propietate mekaniko interesgarriak dituzten eta bateragarriak diren nahaste-formulazioak lortu dira. Proiektu honetan Euskal Herriko Unibertsitateak parte hartu du.

2. ardatza: "Klima-aldaketarekiko egokitzapena eta arriskuaren prebentzioa eta kudeaketa sustatzea"

Ardatz honetan sei proiektu burutu dira eta horietako lautan EAEko bazkideek parte hartu dute.

"OPCC-2" proiektua jarraitutasun-proiektu bat da. Klima Aldaketaren Pirinioetako Behatokia (OPCC) Pirinioetako Lan Elkartearen ekimena da, komunitate zientifikoa Pirinioetako politikagintzarekin eta eragile sozioekonomikoekin bateratzen duena. Helburua du Pirinioetan klima-aldaketarako egokitzeari buruzko erreferentzia nagusia bihurtzea, lankidetzari eta emaitzak partekatzeari esker. Hauek dira lortu diren emaitza nagusiak: Pirinioetako ekosistema naturalek eta giza ekosistemek klima-aldaketarekiko duten kalteberatasunari buruzko datu zientifikoak ematea; "Klimaren aldaketa Pirinioetan: eraginak, urrakortasunak eta egokitzapena" izeneko txosten bat plazaratzea, nazioartean aurkeztu dena eta publikoarentzat eskuragarri dagoena, web-orri bat prestatzea, klima-aldaketaren inpaktuei buruzko funtsezko datuak biltzen dituen, geoatari baten bidez, eta Pirinioetako egokitzapeneko jardunbide egokien datu-base bat. Proiektu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoak parte hartu du PLE Pirinioetako Lan Elkartearen Partzuergoko bazkide gisa, proiektuburu-lanean.

"CANOPEE" proiektua Pirinioetako baso-kudeatzaileei zuzenduta dago batez ere. Mugaz gaindiko lurralde batean, klima-aldaketak basoen banaketan, hazkundean, bizitasunean eta urrakortasunean dituen ondorioei buruz egin den lehen proiektu eragilea da. Proiektuak iraun duen urteetan, basoak klima-aldaketara egokitzeko alorrean erabakiak hartzeko eta esku-hartzeko laguntza-tresnak sortu dira. Proiektu honetan parte hartu duen EAEko bazkidea Hazi fundazioa izan da.

"FLORAPYR" proiektua da OPCC Klima Aldaketaren Pirinioetako Behatokiaren Biodibertsitatearen atalaren jarraipena eta kapitalizazioa, eta lankidetzaren, baliabide

partekatuen eta emaitzen indartzea, 2011-2014 urteetan. Proiektu honen bidez, Pirinioetako Floraren Atlasaren funtzionaltasuna eguneratu eta hobetu nahi izan da, hainbat gizarte-eremuetarako irispidea eta erabilpena errazteko (ikertzaileak, pedagogoak, hezitzaileak, natura-ingurunearen kudeatzaileak eta publikoa oro har). Proiektua indarrean egon den urteetan, Pirinioetako florari buruzko jakintzaren oinarriak atxiki eta osatu dira, flora baskularraren egungo egoera ebaluatu da, eta adierazleak ekoizteko monitorizazio-sistemak garatu dira. Proiektu honetan, EAEren aldetik, Aranzadi Zientzia Elkarteak eta Bazzania S.C., Biodibertsitatearen Ikerketa eta Kudeaketa elkarteak hartu dute parte.

“**REPLIM**” proiektua sortu zen Pirinioetan ekosistema kalteberen, goi-mendietako aintzira eta zohikaztegien behatokien sarea eratzeko, klima-aldaketak lurraldean duen eragina ebaluatzeko eta jakintza zientifikoan oinarritutako arintze- eta egokitzapen-politikak garatzeko. Programatu den garaian, proiektuak REPLIM sarea sortu du, monitorizazio-programa eta protokolo propioekin, eta Pirinioetako lurraldean ezagutarazi da. Proiektuaren EAEko sustatzailea Euskal Herriko Unibertsitatea izan da.

3. ardatza: “Tokiko baliabideen babesa, balorizazioa eta erabilera jasangarria sustatzea”

Ardatz honetan 11 proiektu burutu dira eta horietako seitan EAEko sustatzaileek parte hartu dute.

“**ROUTES SINGULIÈRES**” proiektuaren helburua zen eskualdeko hiriburu nagusien eragin-eremuan hiri sortzaile txiki eta ertainen mugaz haraindiko sare bat sortzea, haien nortasuna ezartzeko eta haien erakargarritasuna indartzeko, turismo kulturalaren esparruko lankidetzeta bateratuko estrategien bidez. Proiektuak iraun duen urteetan, hainbat ekitaldi artistiko egin dira eta topaguneak sortu dira. Parte hartu duten EAEko bazkideak Barakaldoko Udala eta Irungo Udala izan dira.

“**CREACITY**” proiektuaren helburua zen Hondarribia-Baiona-Iruñea mugaz gaindiko hiri-eskualdearen ondare gotortuaren balorizazioari lotutako turismo-eskaintza erakargarria eta kalitatezkoa garatzea. Proiektua indarrean egon den urteetan, kultur aberastasunean oinarritutako estrategia turistiko bat garatzea lortu da. Proiektu honetan parte hartu duen EAEko sustatzailea Hondarribiko Udala izan da.

“**GREEN**” proiektuaren asmoa zen naturguneen eta kudeatzaileen arteko koordinazioa indartzea, Pirinioetako naturguneak sarean jartzeko. Azken helburua zen naturgune bakoitzean jokoan dauden jakintzak, kudeaketa-praktikak eta gaiak partekatzea; leheneratzeko, kontserbatzeko edo kudeatzeko neurri espezifikoko aplikatzea garrantzi

handiko hiru ingurunetan (basogintza, nekazaritza-artzantza eta uretakoa), eta Pirinioetako biodibertsitatearen gai espezifikoari buruzko informazioa ematea. Proiektua programatu den garaian, elkartruke teknikoetatik eta mendian egindako ekintza zehatzetatik harago, pertsonen arteko benetako loturak sortu dira, eta horiek sare dinamiko eta jasangarri baten oinarria dira. 2020an, topaketa bat egin da, Pirinioetako naturguneetako kudeatzaileak sarean jartzen jarraitzeko eta ekintza bateratuko programa berri baten inplementazioa prestatzeko, gizakiaren eta naturaren elkarrenganako mesede eta onurarako. Proiektuaren EAEko sustatzailea Hazi Fundazioa izan da.

"ECOGYP" proiektuaren helburua zen Pirinioetako biodibertsitatea kontserbatzen laguntzea, hegazti harrapari nekrofagoen kudeaketa jasangarrirako esparru bateratu bat garatuz eta Pirinioetako eragileen arteko loturak indartuz. Proiektuak iraun duen urteetan, hegazti harrapari nekrofagoen populazio-dinamiken ezagutza hobetu da errolden bidez; ekosistema-zerbitzuak balioztatu dira, prestakuntza-lantegien bidez, eta gizaki/nekrofagoen arteko bizikidetzak erdietsi da. Hazi Fundazioak eta Arabako Foru Aldundiak hartu dute parte proiektu honetan EAEren aldetik.

"H2OGUREA" proiektuaren helburua zen Mendebaldeko Pirinioetako mugaz gaindiko ibai-arroen ikuspegi orokorra izatea, eta ura kudeatzearen inguruko Europako zuzentzarauen helburuak lortzeko jardutea. Mugaz gaindiko ur-ibilguak modu koordinatuan kudeatzen saiatu zen: Bidasoa, Urdazuri eta Urumea. Proiektu hau mugaz haraindiko oinarri bati jarrituz burutzea funtsezkoa izan da behingoagatik uraren ikuspegia administrazio-muga estuetatik at ateratzeko, eta arroaren eskalan lantzeko. Proiektua indarrean egon den urteetan, eragile eskudunek aukera izan dute elkarrekin lan egiteko eta tresna jakin batzuk transferitzeko edo beste arro batzuetara egokitzeko. Proiektuan parte hartu duten EAEko bazkideak Uraren Euskal Agentzia, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Txingudiko Zerbitzuak SA izan dira.

"EAS" proiektuaren helburua zen euskararen egoera eta bilakaera jasotzea eta ezagutaraztea. Administrazio publikoei, unibertsitatei eta akademiei, hizkuntza gutxituak sustatzeko gizarte-erakundeei eta, oro har, herritarrei zuzenduta zegoen, bai euskararen lurraldeetan, bai Europa mailan. Urte hauetan zehar, proiektuak balio izan du erabilera publikoko euskararen adierazle-sistema bat sortzeko, zeinean datuak biltzen baitira diagnostiko zehatzak egin ahal izateko eta euskararen iraunkortasunaren aldeko politikak ezarri ahal izateko. Gaur arte, 44 adierazleren datuak jaso dira, baina urtez urte gero eta gehiago dira, eta asmoa da gero eta eremu gehiago hartzea. EAEko lankidetzak Eusko Jaurlaritzaren eskutik etorri da —proiektuburu gisa—, Arabako Foru Aldunditik, Bizkaiko Foru Aldunditik eta Gipuzkoako Foru Aldunditik.

4. ardatza: “Ondasunen eta pertsonen mugikortasuna laguntzea”

Ardatz honetan, proiektu bakarra amaitu da, eta EAEko bazkide baten partaidetza du.

"TRANSFERMUGA2" proiektua jarraitutasun-proiektu bat da. Lehenengo etapan, mugaz gaindiko mugikortasunaren inbentarioa egin zen, eta bigarren proiektu honetan garraioaren arloan berrikuntza irekia sustatu nahi izan da, bidaiariei informazioa hobea emateko. Proiektua amaitzean lortutako lorpenak honela laburbil daitezke: "transfermuga.eu" izeneko web-gune bat sortu da, mugaren bi aldeetan dauden garraio bideei buruzko informazioa ematen duena, bai eta garraioaren garapenari eta toki multimodalei buruzko zenbait azterlanetan dagoena. Proiektua Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa euroeskualdeak gidatu du.

5. ardatza: “Lurraldeen eskumenak eta inklusioa indartzea”

Ardatz honetan, 11 proiektu burutu dira eta horietako hirutan EAEko sustatzaileek parte hartu dute.

"ITSASOTIK ITSASORA" proiektua "PYRÉNÉES DE CIRQUE" proiektuaren jarraipena da, eta zirkuko artisten orientazioa, prestakuntza eta laguntza hobetzeko asmoz sortu zen, batez ere artista berrien kasuan, lanbide osoarekiko elkartasun-loturak sortzeko. Proiektuaren nazioarteko izariak bide eman zien artistei Pirinioetatik eta beren herrialdeko mugetatik haragoko aukerak aurkitzeko. Programazioaldian mugaz gaindiko 150 artista baino gehiagoren karrera profesional eta artistikoak sendotzea lortu da. Proiektuaren EAEko sustatzailea Bilboko Udala izan da.

"AE ENPLEGUA" proiektuak Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa euroeskualde mailan enpleguaren arazo diziplinartekoari heldu zion, bai ikuspegi teorikotik, bai praktikotik, enpresa, langile eta langabeentzat. Proiektuaren helburu nagusia izan da hiru eskualdeen arteko harremanak arintzea, oztopo fisikoak, linguistikoak, fiskalak eta eskumeneren asimetria gorabehera, eta eskualde horien artean dauden errealitate desberdinen ezjakintasuna konpontzea. Proiektuak iraun duen urteetan, mugaz gaindiko enpleguaren egoeraren diagnostikoa egin da (3.863 herritarrek igarotzen dute egunero muga lanera joateko, euroeskualdearen eremuan); foro bat sortu da, hiru eskualdeetako enpleguaren eremuko eragileak biltzen dituena, eta informazio-atari bat landu da, www.emploi-info.eu. EAEko lankidetzak Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa euroeskualdearen eskutik etorri da, bazkide bakarra izan baita

"ETESS" proiektuaren helburua zen Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako eta Pirinio Atlantikoetako tokiko eragileen enplegurako irispidea hobetzea, Gizarte Ekonomiak lurraldeen hazkunde adimendun, jasangarri eta integratzailean laguntzeko

duen gaitasunean oinarrituta. Proiektuaren elementu nabarmenetako bat "metodoa, ekintza eta prestakuntza" konbinazioa izan da. Proiektuak iraun duen urteetan, 150 tokiko eragile eta proiektu-sustatzaile baino gehiago akreditatu dira, eta 32 lankidetzaproiektu ari dira gauzatzen esperimentu-fasean. Denboran irauteko asmoa duen ekimena da, proiektuaren amaieratik harago, 60 proiektu-aukera baino gehiago atzeman baitira. Proiektu honetan parte hartu duen EAEko bazkidea Euskadiko Kooperatiboen Konfederazioa da.

Interreg V-A ESPAÑA-FRANTZIA-ANDORRA 2014-2020.
EAEko sustatzaileak dituzten programatutako proiektuak
2014-2020

Ardatza	Inbertsio Lehetasuna	Proiektua Kopurua	Akronimoa	Inbertsioa guztira	EGEF guztira	EAEko bazkidearen inbertsioa	EAEko bazkidearen EGEF
1	1b		EFA001/15 TransferINN	1.776.942	1.155.013	500.543	325.353
			EFA003/15 HEALTH LSR	1.978.590	1.286.083	688.150	447.298
			EFA005/15 INNOLACT	1.788.147	1.162.295	677.507	440.380
			EFA037/15 CYCLALG	1.415.652	920.174	558.655	363.126
			EFA038/15 REFIBIO II	2.124.931	1.381.203	536.559	348.764
			EFA048/15 PyrenEOS	2.023.078	1.316.951	163.456	106.246
			EFA050/15 COMPETITIV'EKO	1.008.605	655.593	307.260	199.719
			EFA064/15 REVALPET	1.258.999	818.349	288.099	187.264
			EFA077/15 CONNECT Innovation!	1.833.732	1.191.926	1.089.702	708.306
			EFA090/15 Transfron3D	1.619.269	1.052.525	865.968	562.879
			EFA092/15 iForWood	1.995.962	1.297.375	260.367	169.239
			EFA099/15 FOODYPLAST	1.694.765	1.101.597	215.469	140.055
			EFA139/16 EMENSASPI	716.423	465.675	329.802	214.371
			EFA142/16 ORHI	1.992.538	1.295.150	659.588	428.732
			EFA148/16 REDPRION	2.000.000	1.300.000	400.000	260.000
			EFA152/16 TESTACOS	1.291.569	839.520	158.759	103.193
			EFA194/16 TNSI	1.913.052	1.243.484	293.093	190.511
			EFA208/16 ARDI	1.155.073	750.797	461.912	300.243
			EFA227/16 LINGUATEC	1.227.500	797.875	661.400	429.910
			EFA253/16 BIOPLAST	1.495.590	972.134	200.000	130.000
			EFA298/19 LANALAND	1.196.555	777.760	485.420	315.523
			EFA312/19 EKATE	1.290.971	839.131	170.298	110.694
			EFA313/19 LGMED	1.575.179	1.023.867	437.419	284.322
			EFA321/19 COMPET'plus	920.810	598.527	201.993	131.295
			EFA329/19 REVALPET'UP	1.450.661	942.930	393.957	256.072
			EFA350/19 CORE	1.290.776	839.004	300.730	195.475
			EFA357/19 INNOTUB	913.531	593.795	178.032	115.721
			EFA360/19 PROTEOBLOOD	1.445.913	939.843	136.610	88.797
			EFA362/19 PIXIL	1.342.231	872.450	180.000	117.000
1b guztira		29		43.737.044	28.431.027	11.800.749	7.670.487
	3b		EFA278/16 PYRENART	2.003.493	1.302.270	104.000	67.600
			EFA302/19 DRIVEINML	545.513	354.584	92.327	60.013
			EFA338/19 GATURI	1.436.765	933.888	181.961	118.275
3b guztira		3		3.985.771	2.590.742	378.289	245.888
1 ardatza guztira		32		47.722.815	31.021.769	12.179.037	7.916.374
2	5a		EFA028/15 CANOPEE	926.694	602.351	137.895	89.632
			EFA056/15 REPLIM	1.002.346	651.526	111.634	72.563
			EFA081/15 CLIM'PY	872.598	567.189	83.536	54.298
			EFA082/15 OPCC-2	1.173.920	763.048	105.079	68.301
			EFA100/15 FLORAPYR	822.737	534.780	74.902	48.687
			EFA210/16 PIRAGUA	1.808.823	1.175.735	390.391	253.754
			EFA346/19 OPCC ADAPYR	1.940.963	1.261.626	245.056	159.286
			EFA337/19 ACCLIMAFOR	511.081	332.203	66.105	42.968
			EFA297/19 VITISAD	702.571	456.671	178.974	116.333
			EFA322/19 FLORAPYR AVANCE	595.701	387.206	62.650	40.723
			EFA310/19 CLIM'AGIL	722.376	469.545	99.029	64.369
5a guztira		11		11.079.810	7.201.878	1.555.250	1.010.913
	5b		EFA046/15 MAREA	1.545.037	1.004.273	639.265	415.522
			EFA200/16 HelINET	2.548.479	1.656.511	831.429	540.429
			EFA250/16 ALERT	3.399.275	2.209.529	453.911	295.042
			EFA344/19 MARLIT	1.304.176	847.714	316.948	206.016
5b guztira		4		8.796.967	5.718.027	2.241.553	1.457.009
2 ardatza guztira		15		19.876.777	12.919.905	3.796.803	2.467.923
3	6c		EFA027/15 Routes singulières	2.213.540	1.438.801	896.000	582.400
			EFA040/15 EAS	598.488	389.018	417.028	271.069
			EFA054/15 TXINBADIA+	3.744.660	2.434.029	2.117.684	1.376.494
			EFA060/15 CREACITY	1.153.848	750.001	384.615	250.000
			EFA251/16 PATRIM+	1.250.000	812.500	200.000	130.000
6c guztira		5		8.960.536	5.824.349	4.015.327	2.609.963
	6d		EFA057/15 GREEN	2.016.807	1.310.925	262.688	170.747
			EFA062/15 H2Ogurea	3.744.737	2.434.079	1.699.634	1.104.762
			EFA079/15 HABIOS	2.203.413	1.432.218	266.771	173.401
			EFA089/15 ECOGYR	2.188.765	1.422.697	220.887	143.577
			EFA224/16 FAUNAPYR	545.300	354.445	165.800	107.770
			EFA343/19 CONECTFOR	1.378.363	895.936	89.975	58.484
6d guztira		6		12.077.385	7.850.300	2.705.755	1.758.741
3 ardatza guztira		11		21.037.921	13.674.649	6.721.082	4.368.704
4	7c		EFA042/15 TRANSFERMUGA2	829.940	539.461	414.970	269.730
			EFA117/15 EDERBIDEA	9.402.306	6.111.499	1.815.462	1.180.050
			EFA126/16 E-MOBASK	1.819.013	1.182.358	1.144.220	743.743
			EFA268/16 SMARTMOB	2.108.627	1.370.607	676.571	439.771
			EFA314/19 TRANSFERMUGA-RREKIN	3.757.205	2.442.183	1.229.083	798.904
7c guztira		5		17.917.091	11.646.108	5.280.306	3.432.198
4 guztira		5		17.917.091	11.646.108	5.280.306	3.432.198
5	8e		EFA041/15 ETESS	1.303.070	846.995	309.033	200.871
			EFA043/15 Empleo AE	256.012	166.408	128.006	83.204
			EFA076/15 De mar a mar	1.990.390	1.293.754	158.000	102.700
			EFA097/15 PyreneFP	1.980.687	1.287.446	269.948	175.466
			EFA162/16 LLL-TRANSVERSALIS	1.750.888	1.138.077	87.638	56.965
			EFA170/16 ICTTRAINING40	441.525	286.991	154.400	100.360
			EFA252/16 Irakaslegaiak AEN	659.660	428.779	202.658	131.727
			EFA260/16 COOPWOOD	1.027.600	667.940	455.000	295.750
			EFA316/19 TPC	1.154.994	750.746	155.000	100.750
			EFA318/19 FORMA NAEN	746.875	485.469	373.863	243.011
			EFA331/19 Ocean i3	256.000	166.400	162.000	105.300
			EFA333/19 GOPY	721.745	469.134	89.134	57.937
			EFA355/19 TRANSLANEKIN	630.000	409.498	80.960	52.624
8e guztira		13		12.919.446	8.397.638	2.625.640	1.706.666
	9a		EFA034/15 Limitis Forum	589.240	383.006	187.180	121.667
			EFA128/16 MIGAP	1.938.004	1.259.703	260.696	169.453
			EFA151/16 EKIN	764.731	485.375	218.587	142.082
			EFA258/16 SAREA	568.515	369.535	292.533	190.146
			EFA330/19 BERTAN	761.124	494.731	192.178	124.916
9a guztira		5		4.621.614	2.992.349	1.151.175	748.263
5 ardatza guztira		18		17.541.061	11.389.987	3.776.814	2.454.929
Guztira		81		124.095.663	80.652.419	31.754.042	20.640.128